

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Europako saria Nafarroako bi eTwinning proiekturi

Ablitaseko San Babil eta Garesko Padres Reparadores ikastetxeko bi proiektu saritu dituzte

Asteartea, 2018.eko martxoak 6

Europa mailako [eTwinning saria](#) eskuratu dute Nafarroako bi ikastetxetako proiektuek. Ablitaseko San Babil ikastetxeak, Hiritartasun sariarekin, batetik, eta Garesko Padres Reparadores, bestetik, frantses hizkuntzako sariarekin. Guztira 700 proiektu aurkeztu dira eta saritutako 14 proiektuen artean daude Nafarroako biak.

[“La estrella digital”](#)

izeneko proiektuan aritu dira Ablitaseko San Babil Haur eta Lehen ikastetxeak, Saint Florent Sur Cher-eko (Frantzia) Collège Voltaire ikastetxearekin elkarlanean. Hiritartasunaren saria irabazi du eTwinning Enbaxadorea den

proiektuak. Juan Peñas Viso irakasleak diseinatu du, Frantziako bere kidearekin batera, eta ikasleak zein euren familiak modu kolaboratiboan landu dituzte konpetentzia digitalak bost arlotan: informazioa, komunikazioa, edukien sorkuntza, segurtasuna eta arazoaren soluzioa. Egindako proiektua originaltasunagatik eta aktibitateen diseinua zaintzeagatik nabarmendu dute; izan ere, hainbat lan dinamika erabili dituzte ikasleen interesa erakartzeko, eta zenbait tresna eta aplikazioren bidez esperimendatzeko aukera emateko. Kasu honetan, Frantziaren eta Alemaniaren aldeko botoekin irabazi dute saria, Ablitasekoak 6. mailako ikasleek.

Garesko Padres Reparadores ikastetxeko proiektu irabazlea [“Twinlettres : regards critiques sur le monde”](#) deitzen da. Mathilde Hugrel Vidal irakaslearen gidaritzapean aritu dira DBHko 2., 3. eta 4. mailako ikasleak. Frantseseko irakasleen Nazioarteko Elkartearen eta Frantsesaren babeserako Espainiako Zerbitzuaren aldeko botoekin eskuratu dute saria. Izan ere, kasu honetan, frantsesez landutako proiektua izan da, Errumania, Grezia, Tunez, Belgika, Italia eta Murtziako ikastetxe batzuekin batera.

Garesko ikasleena frantseseko idazketa kolaboratibo digitalari



Otsailean Hezkuntza departamentuan egindako eTwinning jardunaldiko partehartzaileak.

buruzko proiektu bikaina da. Murtziako Rey Carlos III Bigarren Hezkuntzako Institutukoak (Águilas) ere parte hartu du. Bera izan da Padres Reparadoreseko Mathilde Hugrel Vidal irakaslearekin aritu dena proiektua gidatzen. Ikasleek gutun-kontakteta sortu dute, Montesquieuren Persiako Eskutitzetan inspiratuta, eta elkarlanean ikasten aritu dira.